

Zumaiako herri aldizkaria

2001eko maiatzak 18

BALEIKE

200 pta.

83. zenb.

Anbulatorioa

zabaltze lanen inguruan eztabaida



Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea
BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea
Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzioa batzordea
Esther Aizpurua
Eguzki Agirrezabalaga
Antxoka Agirre
Juan Luis Romatet
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Koordinatzailea
Juan Luis Romatet

Kazetariak
Antxoka Agirre
Xabier Aizpurua

Marrazkigilea
Jon Manzisidor

Kolaboratzaileak
Miriam Romatet, Xabier Aranguren,
Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,
Dani Carballo, Joxe Mari Llavori,
Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,
Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize
Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat
Fernandez de Arroyabe, Luis Mari
Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose
Manuel Gonzalez Aramendi,
Ludoteka, Natur Taldea

Argazkiak
Baleike, Euskaldunon Egunkaria

Publizitatea
Esther Etxeberria

Diseinua eta maketazioa
Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa
Imanol Azkue

Banaketa
Andoni Ormazuri
J.J. Aizpurua

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada
1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN
1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

8 ze berri?
Hauteskundearen emaitzak



8 Elkarrizketa
Andaluziarrekin hizketan

12 Elkarrizketa
Alfredo Aldalur

13 Bazterbide
Goltzibar, Izarraitzeko errailetan

20 Kirolak
Atzerritarrak Zumaiakon

22 Kultura
Jon Maia eta Mikel Dalbreten liburua



23 Kultura
Itziar eta Jon Ander sarituak

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



kutxa
zuri esker



Gezurra da Pinotxo

KAIXO PINOTXO: Aspaldi nuen zuri idazteko gogoia. Bada esan nahi nizukeen zerbait: gezurra esan digute. Zuri eta guri. Engainatu egin gaituzte. Munduko gezurti handiena zinela esan ziguten, gezurretan aritzen zenak ez zuela etorkizunik, egia bakarrik esan behar zela, nonahi eta beti... Ja!

Zu ezagutu ondoren gezur asko entzun ditut, baina zureen aldean hauek potoloak izan dira, mingarriagoak, eta batzuetan ondoeza eragiteko modukoak ere bai. Ez, Pinotxo, zu ez zara munduko gezurti handiena. Zure aldean goi mailako titulazioa duen makina bat gezurti bada inguruan. Gure herrian gertatzen diren basakerien aurrean isilik egoteko gai denak ez du ezer esaten. Behin eta berriro galdetu arren txintik ere ez esateko gai denak ez du ezer esan. Baina bihotzak, edo barrenak agintzen diona azaltzeko gai ez dena gezurretan ari da. Sentitzen eta pentsatzen duena ahapeka, eta gutxi batzuei bakarrik esateko gai dena, ez da bere buruaren jabe. Ez daki zer den burujabetza, ezta subiranotasuna ere. Pentsatzen duena tabernan ez ezik kalean edo behar den tokian esateko gai denak bakarrik du hitz horien benetako esanahia ezagutzeko aukera.

Ez pinotxo, zurea ez zen horren larria izan. Gurea okerragoa da. Gezurra esatea baino okerragoa baita pentsatzen dena esateko ausardiarik ez izatea.



Esther Aizpurua

bazterrak nahasten

Antxoka Agirre

Maiatzak 14

Kanpaina amaitezina jasan eta azken aste honetan kasik beste ezertaz hitz egin gabe egon ondoren badaukagu norbere burua eta bazter hau nahasteko adina.

EAEko populuak atzo eman zuen bere bozka. Batzuek Madrilera itzuli beharko dute haizea hartzera, belarria hanka artean dutela. Beste batzuek, berriz, haize berriak behar dituzte. Azkenik irabazleak ditugu haizea burura igo eta dena ongi egin dutela pentsatzeko arriskua izan dezaketenak. Batzuek nahi zuten 'cambioa' ez da emango beraz, bejondeiola, baina ea gauzak aldatzeko kapazak garen, herri honek dituen erronka nagusiei aurre egiteko beharrezkoa baita abertzaleek elkar ulertzea. Bestela, beti geldituko zaigu PKD.

Bukatzeko, I.U. eta gafosoa atzo telebistan egin zuten bezala eusko gudariak abesten marrazteko eskatuko diot Mantxiri. Hemen ez dago zentsurarik.

* Tira honek Egunkarian irten behar zuen joan den astean, baina dirudienez fuertegia iruditu zitzaizen eta ez zen argiratu. Hor daukazu, eta norberak atera ditzala bere konklusioak. Hala ere Euskaldunon Egunkaria herri triste honetan kaleratzen direneta-tik duinena iruditzen zaigu zalantzarik gabe, eta hori konziente izanik jasan behar duen presioa oso handia dela. Zortea dugu Baleike bezalako herri aldizkari txiki batean adierazpen askatasuna mantentzeaz, 1000 aleko askatasuna izan arren. Jon Mantzisor.



dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - IZUMAJA 943 867543

Azken Baleiken, Dendari Elkartearen idatzi bat azaldu zen: Dendari Elkartea ez dago ados Udalak Azokarako duen asmoarekin. Edonork dauka iritzi bat izateko eskubide osoa. Hala ere, kontu hau dela eta, azken urtebetean Dendari Elkartearekin izan ditudan bileretan bazirudien denetatik zegoela: zalantzak bai, ezezko borobilak, gutxiago. Baina behar bada nire inpresio soila besterik ez da.

Azkeneko urteetan behin eta berriz sumatzen zen argudioa: "Goiko Plaza hiltzen ari da eta Udalak ez du ezer egiten hori ekiditeko". Goiko plaza hiltzen ari dela, ezin ukatu. Pena dela hiltzen ikustea?, ba nire ustez, bai.

Azoka plaza Udalarena da, eta bertako saltzaileak Udalaren bezero. Azokak, arrakasta murrizta izateaz gain, baditu beste arazo batzuk: azpiegitura arazoak. Sanidadeko gutxieneko baldintzak ez ditu betetzen. Jendea ez du erakartzen. Itxura desegokia du. Pena da. Baina eraikina bera berritzeak, besterik gabe, miloi mordoak kostatuko litzaioke Zumaiako Udalar, hau da, zumaiarrei (dirua, hemen edo han jar daiteke, baina nekez diru berdina bi leku ezberdinetan). Eta horrela egitea erabaki, dirutza mardula jarri, eta gero zer? Gaur egun daudenekin, eskaintza berdinarekin jarraitzekotan? Oso errentagarritasun gutxiko inbertsioa litzateke hori... Elkar teak Zarauzko adibidea aipatzen du. Zarautz askotan eredutzat hartzen dugu, eta gauza batzuetarako baliagarri izan daiteke, baina: ba al du zer ikusirik gure plazak eta Zarauzkoak?: bat, kokapena; bi bertako saltzaileen kopurua eta eskaintza; hiru, ordutegia; lau, herriaren biztanle kopurua; bost, udan bertara hurbiltzen den jendetza... Eta hala ere arazoak dituzte, eta hor dabilta konponbideak asmatu nahian.

Zumaian baserritar gehiago ez dugu: nor gonbidatu etortzera? Zumaian enpresa eta tailer indartsuak ditugu (eta Udalak badu zerikusirik horretan), eta esnezale gutxi... Ez legoke gaizki planteamendua, posible balitz. Baina ez da. Apustulari izan daiteke, norberaren dirua ez denarekin errazago gainera... baina apustu garesti xamarra iruditzen zaigu emaitza motzerako.

Ez dagoela aparkalekurik. Badakigu goiko kaleak ez zirela asmatuak izan automobilentzat. Baina lehiaketan enpresaren batek parte hartu eta dirua hasieran botatzen badu, berak ikusiko du nolako arriskueta sartzen den. Bestalde, 300 m²-ko azalera batez ari gara: ez dut uste "merkataritza zentro" izenda daitekeenik. Baina gure ustez, orain bertaratzen ez den jendea erakarriko luke eta gaur egun oraindik ere agoantatzen duten baserritar eta arrandunentzat mesede zuzena suposatuko. Horientzat ez ezik, baita inguruetakoa dendarientzat ere. Jendea dabilen kalean saltzen da (eta hala ere behin ere ez nahi -edo behar- adina). Inor denda aurretik pasatzen ez bada...

Aldaketek beti ere beldurra eragiten dute. Dena dela, ez da hainbestearainoko aldaketa: azokak azoka izaten jarraitzen du. Orain daudenak gehi dena txukuntzeko eta erakargarri bihurtzeko dirua jarriko duena. Besterik urreratzen bada (baserritar edo bestelako) horientzat ere moldatuko genuke lekua, sarbidea erraztu, alegia. Eta gure nahia, baten batek azaldu ezin diren arrazoi beltzak ikusi nahi baditu ere, denon onura da: jendearena, baserritar eta arrandunena, Alde Zaharrarena eta dendariena. Asmatuko dugulakoan.

M^a E. ARRIZABALAGA. MERKATARITZA ZINEGOTZIA

Anbulatorioa: handitzea beharrezkoa da

M^a Axun Zearretak eta 20 sinadura gehiagok sinatutako gutunari erantzun nahi nioke: anbulatorioak, osasun zentroak, ospitaleak eta abarrekoak Osakidetzaarenak dira. Gaur egun egiten ari den anbulatorio egitasmoa ere Osakidetzaarena da. Egitasmo hori behar batzuei erantzuteko da, adibidez igogailurik eza, geletan behar adinako lekurik ez izatea eta zerbitzu eta espezializazio gehiago ematea.

Niri dagokidanez, eta osasun zentroko sendagileekin elkarlanean, urteak daramatzat Osakidetzaaren aurrean behin eta berriz hobekuntza horiek eskatzen. Kokapenari dagokionez, zabalpena denez, gaur egungoaren aldamenean egin beharra dago (hala izan behar du nahitaez). Arkitektura aldetik eraikin berria eta zaharra bateratzeko zailtasunak egon baldin badaude ere, zabalpenak lege babesa dauka, Portua Antolatzeako Plan Berezian halaxe jasotzen baitzen (jendaurrean jarri zen bi alditan eta 1997an onartu zen). Beraz, hirigintza aldetik zabalpen horrek lege babesa dauka.

Kokapenari dagokionez, berriz, gure ustez gaur egungoa egokia da, udalerriaren erdi-erdian dagoelako, ADU.20a urbanizatzen denean autoz erraz iristeko moduan, orientazio onekoa da eta inguru atsegina eta oinezkoentzakoak dauka. Beste kokaleku bat bilatu beharko balitz, beharrezkoa litzateke beste eraikin bat gaur egungo instalazio guztiak hartzeko, eta horrelakorik ez du nahi Osakidetza.

Horregatik, argi utzi nahi diet M^a Axun Zearreta andreari eta sinatzaile guztiei denon onurarengatik jokatzeko ari garela horrela. Gaur egungoaren alboan beste eraikin bat eginez gero bista batzuk kenduko dira, batez ere badia alderakoak, baina zabalpenari esker osasun ekipamendua hobetu egingo da, eta herritar gehienek eta sendagileek zerbitzu hobea eskatzen dute. Aldakoak eta kontrakoak neurrituta, argi dago zein den ondorioa.

RICARDO PEÑA. ZUMAIKO ALKATEA



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



E. Gurrutxaga plazan



Arantza Aramendi
Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Anbulatorioa handitu bai, baina non eta nola?



Auzi berri batekin aurkitu gara zumaiarrok azken hilabete hauetan. Goiko tabernaren neurriak ahaztuta, anbulatorioaren handitze proiektuak hartu du protagonismoa herrian. Denak daude ados: gaur egungo anbulatorioa ez da egokiena eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuei erantzuteko. Eskaerei irtenbide bat aurkitzeko unean, ordea, desados-


tasunak izan dira. Estazio zaharraren eraikinaren alboan bizi diren biztanleen ustez, anbulatorioa herriko beste leku batera eraman beharko litzateke. Osakidetza eta Udalaren iritziz, berriz, oraingo anbulatorioari alboan beste eraikin bat erantsi beharko litzaioke. Kontuak kontu, denak ados daude auzia luzera joango dela.

1986. urtean ezarri zen osasun zentroa lehen Urola trenaren geltokia zen eraikinean. Aita Mari auzategiko lokalak ez zuen gehiagorako ematen, oso txikia zen eta gainera hezetasunak janda zegoen. Hasieratik argi geratu zen, hala ere, Narrondo eta Urola ibaien bokalean kokatutako eraikina ez zela batere egokia, hau ere nahiko txikia izateaz gain, gaixo eta

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330



zaharrentzat oso deserosoa baitzen, eta legearen arabera nahitaezkoak diren igogailuak ezartzeko lekurik ere ez zuen. Anbulatorioa han jartzearen aurka zumaia ugari agertu ziren bere garaian. Herritarren artean sinadurak ere jaso ziren. Informazio iturri batzuen arabera, 2.000 sinadura inguru jaso ziren herrian kokapen horren aurka.

Anbulatorioaren handitze eta hobetze proiektuak aspalditik datoz. 80ko hamarkadaren amaieran igogailuak eraikinaren kanpoaldean ezartzeko proiektu bat aztertu zen, baina baita ahaztu ere. Udal arkitektoaren esanetan, Zumaia Udalaren sarritan zuzendu zaio Osakidetza anbulatorioarentzat irtenbide bat aurkitzeko. Bai herritarrek, bai bertan lan egiten duen jendeak kexa ugari aurkeztu dituzte, ez baita zilegi herrian gero eta haur eta zahar gehiago izanda, eta gero eta zerbitzu gehiagoren beharra izanda, eraikin txiki eta deseroso horretan jarraitu behar izatea.

Dirudienez, profesional eta herritarren kexak heldu ziren Osakidetza buruzagien belarrietara, oraingo anbulatorioaren handitze lanak proposatu baitzituen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. 1996an portuen inguruan egindako plan berezi batean oraingo anbulatorioa handitzea agertzen zen eta handitze lanak Gernika parkean egingo zirela zehazten zen. Lur sail hori, Gernika Parkea kokatuta dagoen lur eremu guztia bezala, Eusko Jaurlaritzarena da, Portuen sailarena hain zuzen ere.

Bederatzi irtenbide

Anbulatorioaren handitze proiektua erabakitzeke, arkitekto gutxi batzuen artean lehiaketa murriztu bat antolatu

zuen Osakidetza. Udal Arkitektoa den Luxiano Pagaegiren proiektu batek irabazi zuen lehiaketa. Proiektuaren arabera, oraingo eraikinaren aurrean antzeko neurriak izango lituzkeen beste eraikin bat kokatuko litzateke, eta bi eraikinak kristalezko hodi batzuen bitartez lotuko lirateke. Bere esanetan, argi izan zuen hasiera batetik herriaren beharrak eta eraikinaren ezaugarriak aintzat hartuko zituela handitze lan hauek garatzean. Horregatik, bederatzi irtenbide ezberdin aurkeztu zituen Hirigintza Batzordean. Denetan ere, eraikin berri baten beharra ikusten zuen eta ez oraingoa handitzea. Horietatik guztietatik zazpigarrena izan da Udaleko zinegotzien gustukoena.

Udal Arkitektoa den Luxiano Pagaegiren proiektu batek irabazi zuen lehiaketa

Proiektu hau aurrera eramaten bada, eraikin zaharraren alboan, orain txabola txiki bat dagoen lekuan, beste eraikin bat ezarriko da. Eraikin horrek behe solairua eta pisu bakarra izango lituzke eta teilatu laua izango luke. Igogailuak eraikin berrian jarriko dira eta bi eraikinak pasabide bitartez egongo dira lotuta. Goitik begiratuta, L handi baten itxura izango luke. Arkitektura aldetik, eraikin berria zeharo ezberdina izango litzateke, eta oraingorekin ez luke zer ikusirik izango.

Eztabaidak bizilagunekin

Aurretik aipatu den bezala, anbulatorioa estazio zaharrera eramatea ez zen zumaia askoren gustukoa izan. Handitze lanek ere sortu dute eztabaida bat baino gehiago herri-

tarren artean, bereziki anbulatorioaren atzean bizi diren bizilagunen artean.

Azken asteotan zenbait gutun gurutatu dira komunikabideetan bizilagunen eta Udal agintarien artean. Bizilagun hauek kexu agertzen dira, proiektu berri honek arazo ugari sortuko bailituzke inguru horretan. Bizilagunen esanetan, eraikin berriak beraien etxebizitzek Zumaia badiara duten bista paregabea kaltetzeaz gain, kalte urbanistiko ugari sortuko lituzke, hala nola, parke zati handi baten desagerpena. Aparkalekuekin ere arazoak izango direla aipatzen dute bizilagunek, eta arazo horiek areagotu egingo direla etxe berriak betetzen direnean.

Estazio zaharraren izaera ere aipatzen dute bizilagunek. Eraikin hori katalogatua dago eta, bizilagunen esanetan, eraikin berria alboan jarrita, estazioaren xarma guztia erabat puskatuta geratuko litzateke. Aipatzen dutenez, Zubi Handitik begiratuta erabat estalita utziko luke eraikin berriak.

Gernika Parke alboko bizilagunek beste irtenbide bat aurkeztu dute: anbulatorioa herriko beste leku batera eramatea. Horretarako jabego publikoa den lekuetara aldatzea eskatzen dute, Oxford eraikinera edo Arrangoleta ingurura, adibidez. Aukera berri honen aurrean, Udalak oraindik ez du ezer esan, baina ez dirudi bere onespina emango duenik.

Kontuak kontu, bizilagunek batzorde bat osatu dute, eta Udal agintariekin bilerak izatekotan dira. Datozen zenbakietan herritarren osasuna eta eskubideak jokoan diren auzi honen berri ematen jarraituko dugu. Gainera, badiarudi luzera joko duela...



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



PNV-EA Garaile EH-k behera egin duen hauteskundeetan

Hilabeteak, urteak iraun dituen aurrekanpaina zikin, lotsagabe eta maleziaz betetako baten ondoren, pasa den maiatzaren 13an izan ziren hauteskundeak Euskal Autonomia Erkidegoan. Dagoeneko denok jakingo duzuen bezala, hauteskundeetan irabazle nagusia Juan Jose Ibarretxeren PNV-EA koalizioa izan zen. Galtzaileak, berriz, Jaime Mayor Orejaren PP, Nicolas Redondo Terresoren PSE-EE eta Euskal Herriarrok alderdi politikoak izan ziren. Hauteskundeen ondorena luzea izango da: elkarriketak, gehiengo lortzeko negoziatioak, etab. Aspertu galanta

hartuko dugu datozen aste eta hilabeteetan.

Autonomia Erkidegoko joera errepikatu da Zumaian ere. Alderdi denek egin dute gora Euskal Herriarrok izan ezik, hauek dezenteko zaplatekoa jaso dute-eta. Herrialde historiko denetan gertatu izan den bezala, PNV eta EAK Eusko Abertzaleak izenarekin osatu duten koalizioa izan da irabazlea. Hauek Zumaian gorakada nabarmena izan dute, ia mila botokoa hain zuzen ere. 98ko hauteskundeetan 2.091 boto jaso bazituzten, aurtengoan 3.063 jaso dituzte. Boto kopuruari dagokionez,

herriko bigarren alderdia EH izan da. Alderdi honek 820 boto jaso ditu, orain hiru urte baino ia 500 boto gutxiago. Hirugarren alderdia PSE-EE izan da 808 botorekin. Hauek 71 botoko igoera izan dute. Zumaiaiko laugarren alderdia PP da 559 botorekin, aurreko hauteskundeetan baino ehun boto baino gehiagorekin. Azkenik, IU-EB daukagu. 224 boto jaso dituzte, 1998an baino 60 gehiago.

Abstentzioa ia %10 bat jaitsi da. 1998an abstentitzea erabaki zuten hautesleen kopurua %28,12 izan zen; aurtengoan, berriz, %19,48koa.

Amaitu dira behingoz hain zalapartatsuak izan diren hauteskundeak. Albiste onak izan dira, baina bat nagusia: Jaime Mayor Orejaren hilobi politikoa bihurtu dela lehendakaritzara eraman behar zuen eguna. Ez da gutxi.



... eta orain San Pankrazioen txanda.

Oraindik ere batzuk Santelmoetako ajeak gainetik kendu ezin dituztela dabilta kalean zehar. Jakina da, edo hala esaten dute batzuek, ajea kentzeko onena berriro festan murgiltzea izaten dela. Festarik festa ibiltzearen zaleek izango dute aukera bere zaletasunei heltzeko, maiatzaren azken asteburuan ospatuko dira-eta Estazioan bertako festarik kuttunenak, San Pankrazioak.

Noski, ezin konparatu pasa berri ditugun Santelmoekin, baina onartu beharra dago Estaziokoek ere badutela beren nortasuna. Maiatzaren 25ean hasiko dira jaiak, herriko zenbait taldek eta bertako eta


kanpoko DJ batzuk eskainiko duten musika saioarekin. Amaiera, aldiz, igande eguerdian izango da ohiko Herri Kirolen saioarekin. Tartean zenbait ekitaldi izango dira, hala nola, paella txapelketa eta bazkari herrikoia, haurrentzako jolasak, XII. Mus Txapelketa (izenak eman Udabe tabernan), txokolatada, sagardo dastaketa eta sardina jana, eta larunbateko ekitaldiei amaiera emateko Lisker musika taldearen saioa. Igandean ez da aldaketa handirik izango eta meza eta hamaiketakoaren ondoren, harri froga ikusteko aukera izango da.

Hori da festa programan agertzen dena. Gero norberak jakingo du zer egin.



Juan Belmonte, 6

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERAOPIA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

“Azentua ez zaigu joango, baina hemengoak ere sentitzen gara”



Sevilla ondoko herrixka batekoa da Beli, Brenes-ekoa; Gloria, berriz, Gasteizen jaioa baina urte asko Sevillan bizitakoa eta Reyes Valladoliden jaioa baina txikitatik Sevillan bizi izandakoa. Duela hiru urtetik hona Lagun Artea enpresak mekaniko eta soldeatzaille sevillarrak ekarri ditu hango enpresa batetik eta Beli, Gloria eta Reyes euren senarrekin etorri dira. Gogorrena maletak egitea izan zela diote, oso ondo moldatu direla hemen, eta bertako kulturaz, sevillar guztien artean sortu duten taldetxoaz, herriminaz eta hainbat konturen inguruan aritu gara. Neu ahal bezala eta eurak andaluziarrek berezkoa duten bizitasun horrekin.

Antxoka Agirre

Nola sortu zen Zumaia eta Sevillaren arteko zubi hau? Nola erabaki zenuten etortzea, nork antolatu zuen...

Gloria- Gure senarrei Sevillan lana ematen zien enpresa eta Lagun Artea bat eginda daude, nolabait. Hemen langileak behar izaten dituzte, batik bat mekanikariak eta baita soldatzaileak ere eta handik hona traslatzen dituzte. Lehenengoak duela hiru urte etorri ziren, bost lagun sei hilabeteko kontratuarekin. Kontratua luzatuz joan dira, beste batzuk ekarri dituzte gero, etorri ziren batzuk itzuli ere egin dira...



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143



INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Beli- Senarren etorrera enpresak erabaki zuen, ez eurek. Gero guk ere, urtebetera edo, eta oraindik ere puska batean ez zirela itzuliko ikusita, etortzea erabaki genuen. Erabaki gogorra zen, baina bueno... Eurak ostatu hartuta zeuden enpresaren kontura, baina gu etorri ginenean bakoitzak bere etxea hartu zuen alokairuan. Eta horrelaxe moldatu gara.

Ze jende zaudete orain?

B- Begoña, Ana, Manoli, Mari Carmen, mutikoaren andregai...

Reyes- Gutxienez hamabi bikote gaude, batzuk umeekin eta gero gizon ezkongabe batzuk ere badaude. Dezenteko koadrila gara.

Handia al da han bizitzearen eta hemen bizitzearen arteko txokea? Hemen moldatzeko zer da zailena suertatu zaizuena?

G- Zailena hasiera da. Gauza asko uzten dituzu han eta hemen bakarrik sentitzen zara. Herriko jendeak ez gintuen ezagutzen, eta gure artean ere ez ginen ezagutzen bakoitza bere aldetik eta banan-banan etorri baikin. Gero euskara ere ez duzu ulertzen eta hasieran horrek ere inpresioa egiten du, behintzat hau bezalako herri euskaldun batean.

B- Gure artean berehala oso harreman ona sortu zen eta horrek asko lagundu zigun. Gero pixkanaka auzokoak ezagutzen dituzu, dendariak... Egia esan mailetak egitea izan zen niri gehien kostatu zitzaidana, gero oso erraz joan da dena.

R- Ni geroago etorri nintzen eta hasierako txoke hori ere txikiagoa izan zen. Lehenengo etortzen direnek nolabait bidea irekitzen dizute, harrera egin, gauzak nola diren esplikat...



Gainera Sevillatik ezagutzen nuen bertan zegoen neska bat.

Zer moduz moldatu zarete hemengo jendearekin?

G- Oso ondo. Lagunak dauzkagu eta ez daukagu inolako kexurik.

B- Gu bezala normal etorri gero, inoren gainetik jarri gabe, jendeak ondo hartzen zaitu.

Zein da hemengo jendea eta hangoaren arteko diferentzia nabarmenena?

G- Umorea. Hemengo umore lehorragoa da eta hangoa alaiagoa.

B- Nik uste hori klimatik dela. Egun bat lainotuta tokatzen bazaizu, beste bat eta baita hurrengo ere, nondik atera behar dituzu barre egiteko indarrak?...

Gero egia da hemengo jendea hitz egiterakoan edukatuagoa ere badela. Han marrua asko egiten dugu eta eztabaida ere berehala hasten da.

Zuek nongoak kontsideratzen zarete?

B- Ni andaluziarra naiz eta daukadan azentu itxi hau ez zait inoiz joango, baina hemen, kalera irteten naizenean

batekin eta bestearekin gelditzen naiz hitz egitera, bertakoa ere sentitzen naiz, integratuta.

G- Nik uste dut bakoitza bizi den tokikoa dela neurri batean behintzat. Nik, 'etxera noa' pentsatzen dudanean buruan daukadana ez da Sevillako etxea, Zumaikoa baizik.

Zer da Zumaikatik gehien gustatu zaizuena?

R- Niri paisaiak eta hondartzak. Itzurungo hondartza oso polita da.

B- Niri dena, baina harreman berezia daukat San Migelekin. Etorri nintzenean egunero-egunero egiten nuen San Migeleko buelta. Orain pixkat makalduta nabil eta gutxi joaten naiz, baina oso kuttuna daukat buelta hori.

G- Ez dakit zer esan. Eliza eta parte zaharra politikak dira, kirol portua eta Santiago alde hori ere balkoitik ikusten dut... dena gustatzen zait.

B- Beste gauza bat kurioa egiten zaidana eta gustatzen zaidana beti kalean jendea egotea da. Nire herrian eguraldi txarrarekin inor ez da

SATIA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

ateratzen eta udaran ere iluntzea arte denak barruan gelditzen dira. Hemen, berriz, ona edo txarra egin beti jende pila dabil kalean.

Eta hemengo kultura, zer iruditzen zaizue?

R- Saiatzen gara ezagutzen eta gustatzen zaigu. Inguruko herri guztiak, katedralak eta toki politak, denak bisitatu ditugu. Azkena Gernikan egon ginen.

B- Festetan ere ibiltzen gara, eta ez dakigu euskal musikarekin dantza egiten, baina egiten dugu ahal duguna. Danborradan egon ginen eta Santel-motan ere bai. Lanpetuta ibili ginen eta ez genuen jantzirik erosi, baina primeran... Orioko balearena ere gustora ikusiko nuen, baina berandu enteratu ginen.

Hemengo sukaldaritzaren dastatuko zenuten.

B- Etxetik kanpora bai, baina etxean andaluziar erara prestatzen ditugu gauzak. Pikantearekin-eta.

R- Andaluziarrek jatun fama daukagu, baina gu behintzat harrituta gaude bertako jendeak zenbat jaten duen.

Ba al duzue euskara ikasteko asmorik?

B- Uff!, nik ez dut ezer ere harra-patzen.

R- Oso zaila da, oso zaila.

G- Tira, denborarekin belarria pixkat egiten zaizu eta agurtzen eta holako gauza batzuk ikasten dituzu, baina hortik aurrera beste kontu bat da.

B- Nik alaba daukat hamabi urtekoa eta semea hamarrekkoa eta biak ikastolan sartu ditut. Hasieran gaizki pasa zuten, negar asko egin zuten, baina orain dena ulertzen dute eta hitz egin ere nahikoa ondo. Haiek erakusten didate zer bait, etxera

etortzen diren papalak-eta eurak irakurtzen dizkidate, baina ez dut neure burua ikasteko ikusten.

Euskara zaila dela diozue, baina zuen azentua ere batzuetan ez da gauza makala.

R- Ci. Eque entre que comemo la palabra y lo rapido que hablamos la mita ce queda en el aire.

B- Lo mejho cera que nozotro empezemo con el ukera y utsede con el andalu. Pero no hagan caso al televizor. Todo zalen haciendo el andalu, remedando nuetro cejillo, pero no lo e ni uno.

Lehen kontatzen zenuten asko laguntzen diozuela elkarri. Nolakoa da zuen arteko harreman hori?

R- Familia bat bezala gara. Batzuekin hobeto konpontzen zara beste batzuekin baino eta taldetxoak daude, baina denak ezagutzen dugu elkar eta bateonbategi laguntza behar badu, ez zaio faltako.

G- Asteburuero talde handi bat elkarrekin ateratzen gara, eta aste barruan bakoitza bere hiru lau lagunekin. Oporretan ere egingo genuke elkarrekin, baina ez digute kointziditzen.

Zer moduz konpontzen zarete Betis eta Sevillakoen artean?

B- Han batzuetan egoten dira iskanbilak, baina jende aldrebesaren artean. Normalean dena adarjotzea izaten da eta hemen ere halaxe izaten dugu.

R- Beli eta senarra Betisekoak dira, Gloriarena ere bat, eta nirea Sevillakoa, baina Gloria eta niri adibidez futbola ez zaigu interesatzen, ez gara inongoak.

G- Bueno... ni Alavesekoa naiz.

B- Hemen ere badago 'pike' hori. Gogoratzen naiz behin Bilbora joan eta kamarero batek semeari Betis edo Sevillakoa zen galdetu ziola. 'Betisekoa eta Errealekoa' erantzun zion semeak, eta kamareroak bota zion begirada edonor beldurtzeko modukoa izan zen.

Zumaian zaudeten artean, mordoxka, egongo da norbait 'arte' berezia duena, ezta?

B- Dantza pixka bat eta festa denok egiten dugu, baina bat horrela bereziki...

R- Xelebrenea Babli izango da agian, martxa haundia dauka mutilak.

G- Bai, eta orokorrean ezkongabeak diren gehienak.

Herrimin haundia izaten al duzue?

B- Haseran gogorragea zen. Familiakoei deitu eta haien ahotsa entzutean tristura sartzen zitzaidan, baina gero ohitu egiten zara. Okerrena izaten da han arazoren bat dagoela esaten dizutenean, hemen egonda ezin baituzu ezer egin.

R- Urtean pare bat aldiz joaten gara eta orduan aprobetxatzen dugu.

Eta herriminak jotzen dizutenean zer egiten duzue buelta emateko?

R- Elkarrekin hitz egin, gure penak elkarri kontatu.

Zer daukazue buruan, hemen gelditu edo hara itzultzea.

B- Oso gustura gaude hemen eta gelditzea ere pasatu izan zait burutik, baina han dauzkagu gure pisuak eta hemen bat erostea kasik ezinezkoa da.

G- Kontratuak irauten duen bitartean hemen egongo gara. Urte bat izan daiteke, edo bost, auskalo. Gero, nik uste, gehienak itzuli egingo direla.



Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Alfredo Aldalur

Zortzi erro, kultura bakarra

**Eguzki epela zegoen, olarrua
lehortzen jartzeko giro
aproposa. Olarruzopa lehia-
ketako irabazlea erriberan
harrapatu genuen, bera ere
eguzkitan.**



Noiztik datorkizu olarruzoparekiko zaletasuna?

Gazte-gaztetatik. Gure garaian olarru zopa asko jaten zen, baita olarru patatak ere, besterik ez zen-eta. Jateko gutxi zegoen eta kostaldean, bada, itsasotik ateratzen genuen jateko gaia. Familia guztia joaten ginen olarru bila harraldera, ama eta neskak etxean geratzen ziren. Batzuetan olarru mordoa ekartzen genuen, baina, ez pentsa, esku hutsik itzulitako egunak ere izaten ziren.

Gaur egun, ordea, asko urritu da olarru kopurua itsasbazterrean, ezta?

Bai horixe, orain joan eta ez da lehen bezainbat olarru ikusten, eta beste genero denarekin ere horixe ari da pasatzen. Gainera, orain olarru asko arrantzatzen da itsasontzietan, eta itsas barnean eta horregatik ere jaitsi da.

Prestatutako olarruak zeuk harrapatzen al dituzu?

Ez, ez, orain ez. Gaztetan jardun nuen olarruak harrapatzen eta hogeit bat urterekin utzi nion. Lapak eta

angarikak ere harrapatzen genituen garai hartan, baina azkenengoz harraldean orain bi urte izan nintzen. Dena dela, lehiaketako olarruak antolatzaileak ekartzen dituzte, eta baita ura ere. Hala ere zenbat aldiz prestatuko dut urte guztian olarruzopa? Pare bat aldiz? Ez dira askoz ere gehiago izango.

Eta zuk prestatuturikoak sekretu berezirik ba al dauka?

Ez, emandako errezeta horixe da dena. Batzuek koñaka botatzen diote, baina nik ezer ere ez diot botatzen. Eta jakin nahiko nuke ea zer arrazoi-gatik botatzen dion jendeak pipermina olarruzopari? Aparteko platera batean atera eta nahi duenak botako dio, ezta? Niri ez zait batere gustatzen eta gertatu izan zait hasi jaten eta jarraitu ezinean platerean utzi beharra.

Ettxeko jatorduak prestatzen al dituzu?

Bai, noski. Egun askotan prestatzen dut jatordua, eta edozer gainera. Baina etxean olarruzoparik ez dut prestatzen, emazteari eta seme alabei ez zaielako gustatzen.

Zer esango zenioke olarruzopa genero nazkagarria dela esaten duenari?

Bakoitza libre da gustatzen zaiona aukeratzeko. Oraingo jendeak gauza bat eduki du ona, etxean sekula ez duela izan janari faltarik. Gu familian 10-12 lagun mahaian jartzen ginenean eta ezer ere ez zegoenean, edozer jateko prest izaten ginen. Orain ez dago horrelako egoerarik, eta zorionez edo zoritxarrez jendea horrela ohitu da.

Olarruzoparen errezeta

5 lagunentzat:

Lehorturiko olarrua beratzen jarri 24 orduz. Kilo erdi tipula gorri eta 2-3 baratxuri ale txikituta jarri oliotan gorritzen. Gorritzean, egindako tomatea, beratutako olarrua zati txikitik eta zopak ogi osoa zatituta nahastu. Horri guztiari beratzen ibilitako ura gehitu, piskanaka, finegia izan ez dadin. Ordubetez su txikian eduki, apal-apal irakiten. Gatza neurrian jarri eta prest!

Arkupe
Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

**ad AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi
basque
català
finnois
français
anglés
catalan
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalan

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

nola gogoratzen duzu Komunioa

inkesta



Soraia Arroiaibe
Gurasoengatik, 8-9 urterekin... Elizara joan aurretik, lurrera erori eta soineko zuria dana zikinduta iritsi nintzan, pentsatu...



Eneko Arrona
Sinesten nuelako, amona eta ama fededunak zian eta ni ere bai. Marineritox. Baina adinez helduago denean egin beharko litzateke, bakoitzak aukeratzeko.



Mila Bakedano
Ohituragatik, egiten zala eta besterik gabe. Mojaz jantzita. Orain nire alabei aukera ematen diet eta zaharrenak ez du egingo.



Iñaki Balentziaga
Denak egiten zutela eta... almirantex egin nuen. Arazoa oinarrian dago, borondatezkoa izan behar du eta 9 urterekin ezin da, eta informazioa ere urria da.



2001 urteko jaunartzeetarako proposamen berritzaileak:

1. Jaunak (Hostia) pokemon itxura izango du.
2. Jaunak (Hostia) triskis zaporea izango du.
3. Jaunak gorde gaitzala (Hostia).



Ana Lisbona
Amak esango zidan eta han joan nintzen, zuriz jantzita. Gainera ondo pasa nuen, gustatzen zitzaidan mutila aurrean neukalako, marineritox.



Anton Egiguren eta Mari Paz Agirrezabalaga
Almirantex egin nuen eta gaizki pasa nuen ondo ikasi gabeko otoitzak egin behar izan nituelako jendearen aurrean. Ni printzesaz joan nintzen eta ondo pasa nuen, erregaloak...



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Izaga Garcia. **Dietista**

Medikuntza naturala



Fitoterapia edo sendabelarren erabilera

Terapeutika naturalean, elikadura orekatua ez ezik, beste prozedura eta teknika asko erabil daitezke osasuntsu mantentzeko, eta horien artean garrantzitsuena fitoterapia edo sendabelarren erabilera da.

Landareek, fotosintesia egitean, eta lurreko mineralekin nahastean, 'printzipio aktibo' desberdinak osatzen dituzte (almidoiak, taninoak, muzilagoak, alkaloideak...). Horiek izango dira sendagai bezala erabiliko ditugunak. Sendabelarrak, osasuntsu zein gaixo gaudenean erabil daitezke eta kontuan hartu behar da nahiz eta sendabelar bakoitza gaitz konkretu baterako erabiltzen dugun, ez dutela gaixotasunaren aurkako ekintza zehatzik egingo (sendagai kimiko gehienek ez bezala), gorputzaren babes mekanismoak garatuko baizik. Sendabelarren erabilerak, bestalde, albo ondorioak gutxituko ditu.

Sendabelarrak era askotan erabil daitezke, ezagunena infusioa bada ere: enplastuak, bainuak, zukuak, xarabeak, pastillak, lurrunak, etab. Batzuetan egokiena ez da izaten infusioa, landarearen printzipio aktiboa oso kopuru txikian hartuko baitugu, eta hobeto izaten da beste era batera hartzea.

Gure gizartean automedikazioa eta gaitz txikienarentzat ere produktu eta sendagai kimikoak hartzea oso errotua dago. Osasun kontuetan oraindik ez daukagu behar adinako informaziorik. Minaren aurka aspirina erabiltzen da, azido azetilsaliziliko analgesiko moduan erabiliz. Printzipio aktibo hori lehenengo aldiz sahatsetik atera zen, baina gaur egun sintesi kimikoa erabiltzen da. Sahatsaren azalak efektu analgesiko berdina du, eta gainera gorputzak hobeto onartzen du. Antibiotiko sintetikoak, kasu konkretuetan lagungarri izan badaitezke ere, gorputza ahuldu eta arazo gastrikoak ematen dituzte luzarora. Horregatik egokiagoa da sendabelarren bidez gorputza indartu eta agente kaltegarrirei aurre egiteko defentsak eratzea.

Norberak normalean jakiten du zein den bere osasun arazoa edo zer daukan ahulagoa. Sintomatologia horri aurre egiteko sendabelar egokiena aukeratzu gero, gehienetan arazoa ez konplikazio bihurtuko. Baina, askotan, benetan gaizki gaudenean bakarrik larritzen garenez, dieta egoki eta tratamendu fitoterapeutiko pertsonalizatua beharko dugu gorputza guztiz sendatzeko. Horiek, ordea, beti ere terapeuta naturista profesional batek aginduko dizkigu.

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

expert
ELEKTROGAILUAK
MERTXE AIZPURUA
Etkezarreta, 6 Tel. 943 861078

KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

Belen Golmaio. **Euskara teknikaria**

Herri euskara

Goiko Alberka

Lehengo egun batean, nire ilobatxo bati Zumaiaiko goiko kaleak erakusten ari nintzela, Harategiko kalean barrena, lehengo solfa zaharraren aurrera iritsi ginen eta txoko polit hartako arkuaren azpitik, Ardantzara jaisteko eskailera aurrean gelditu eta zera esan nion: "Begira, Amets, hemen dago goiko alberga".

Eta alberga zenaren ate ondora arrimatu eta zirrikietatik saiatu nintzen hamaika aldiz ikusitako harrizko aska handiak ikusten, baina belar zaharrak besterik ez zen ageri. "Eta zer da alberga?", galdetu zidanean, konturatu nintzen betidanik etxean labadora ezagutu duen ume bati, zaila egingo zitzaioala sinestea, oraindik ez dela urte asko, albergan garbitzen zirela etxeko arropa gehienak.

Nik, berriz, gogoan daukat oraindik, nola joaten ziren andreak albergara arropaz betetako zinkeko ontziak buru gainean zituztela eta Txinbo xaboia eta arropa zuriari kolorea emateko anila hartuta.

Albergak, ordea, arropa garbitzeko tokia izateaz gain, beste funtzio bat ere betetzen zuela uste dut. Izan ere, emakume talde bat elkarrekin juntatuz gero, normala da berriketan jardutea eta arropekin batera herriko kontuak eta trapu zaharrak ere bapo astinduko ziren. Horren ondorio izango da, behin baino gehiagotan esaten dugun "albergako kontuak izango ditun...".

Gauza da, aurrerapenen eraginez, denborarekin herriko albergak pixkanaka-pixkanaka galtzen joan garela, Ardantzabide sarreran zegoen beheko alberga, Estazio bidekoa, Arrukalekoa...

Eta hauxe bakarrik geratzen zaigula ikusita, ez al litzateke egokia izango alberga hau ondo-ondo txukundu eta kontserbatzea, garai bateko ohitura eta bizimoduaren lekuko izateko? Berez polita eta batzuetan zikin xamarra egoten den inguru horrek ere asko irabaziko luke, eta guk, ia ahaztua daukagun "alberga" hitza erabiltzen jarraitzeko aitzakia edukiko genuke.



Debako enpresa batek **Pintore Industrialia** behar du (51193/2 eskaintza).

• **Baldintzak:**

Pintore industrial ikastaroa egin izana.

• **Eskaintzen da:**

5 hilabeteko lan kontratua.

2.255.000 pezetako ordainsari gordina.

Zarauzko enpresa batek **Mekanikari Doitzailea** behar du (49904/4 eskaintza)

• **Baldintzak:**

FP II; Industri Maisuaren maila.

5 urteko esperientzia.

• **Eskaintzen da:**

6 hilabeteko lan kontratua.

3.350.000 pezetako ordainsari gordina.

Azotiko enpresa batek **Antolaketa Teknikaria** behar du (51620/2 eskaintza)

• **Baldintzak:**

FP II; Industri Maisuaren maila.

• **Eskaintzen da:**

6 hilabeteko lan kontratua.

2.262.000 pezetako ordainsari gordina.

Zarauzko enpresa batek **Kalitate Kontroleko Ingeniaria** behar du (51498/1 eskaintza)

• **Baldintzak:**

Ikasketa maila: diplomatua.

Euskara eta ingeles maila gorena.

25 eta 50 urte bitartekoa.

• **Eskaintzen da:**

12 hilabeteko lan kontratua.

2.250.000 pezetako ordainsari gordina.

Azpeitiko enpresa batek **Motobonbak egiteko langilea** behar du (52.059/4 eskaintza)

• **Baldintzak:**

16 eta 21 urte bitartekoa.

• **Eskaintzen da:**

24 hilabeteko lan kontratua.

2.200.000 pezetako ordainsari gordina.

Berehala hasteko.

Eskaintza hauetako bat interesgarri gertatzen bazaizu eta lortzeko aukera egin nahi baduzu, gogoan hartu eskaintzaren erreferentzia eta hautagai moduan sartua izatea eskatu Zumaiaiko Institutoko Langaiko arduradunari (943-860809 edo 943-860810)



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959



Ingeleseko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Thomas Homölle

“Mailari eusten saiatuko gara”

Zumaiako larri dabil eta azken orduko fitxaketa izan da Thomas, Kolonia iparraldean dagoen Münster herriko taldetik etorri den 24 urteko erdilaria. Fitxaketa merkea izan da, dohainik, neskalagunari bisita egin eta gaztelania ikastera etorri baitzen Thomas Zumaiara, eta ona, sartu gabeko gol bat apuntatu baitiote.

Nola iritsi zara Zumaiara?

Neskalaguna bertakoa daukat eta hemen nola bizi zareten probatzera etorri naiz unibertsitateak gaztelania ikasteko eman didan bi hilabetetako beka bat aprobetxatuaz. Martxo bukaeran iritsi nintzen eta laster joan beharra dut berriro.

Eta, gustatu al zaizu hemengo bizimodua?

Toki ona da. Jendea, paisaia, itsasoa, jatekoa, parrandak... Batik bat hondartzak oso politak dira.

Zer egiten du alemaniar batek Zumaiakon jokatzeko?

Kirola gustatu egiten zait eta futbolekin zazpi urte nituenetik jokatu izan dut nire herriko taldean. Hona iritsi nintzen denbora libre asko neukan, entrenatzen ikusi nituen eta inbidia eman zidaten, eta komentatu nien ea eurekin aritzerik baneukan. Castrok fitxa egin eta jokatzeko hasi naiz.

Zer moduz moldatu zara taldekideekin?

Ondo, jende jatorra da. Hasieran ingelesez egiten nuen badakiten bi jokalarirekin eta Castrorekin, eta gero erdarazko oinarritzko hitz batzuk ikasi ditut eta zerbait moldatzen naiz.

Zelaian ere ondo moldatu zara orain artean; lehenengo partiduan gola sartu zenuen behintzat.

Moldatu naiz bai. Hala ere esan beharra dago gola ez nuela nik sartu. Kornerra zen, salto egin eta baloia ez nuen ukitu eta atzean neukan defentsak sartu zuen bere atean. Arbitroak niri apuntatu zidan, perio-dikoan niri eman zidaten, eta eskertzen diet.



zen eta gol mordoxka sartu zituen”, dio Joseba Esnalek.

Denboraldi hartan ikusleen arreta bereganatu zuen taldeak. “Batetik, Yuji zegoen, jendeak ‘La estrella del sol de oriente’ deitzen ziona. Bestetik, estatuan lehen futbol taldea ginen emakumezko masajista batekin, Karnele Etxabe, eta makina bat komentario sortu zituen horrek ere”.

Hurrengo denboraldian Tomas beltza aritu zen taldean. “Herrian zebilen paisa bat zen. Larunbat gau batean bera futbolari ona zela esan zion taldeko norbaiti, honek kaxondeoan entrenamenduetara etortzeko erantzun eta astelehenean azaldu egin zen. Bi hilabete aritu zen entrenatzen, baina ez zen hain ona eta ez zuen jokatu”, kontatu digu Josebak.

Zein desberdintasun daude Alemanian jokatzeko zenuen futboletik hemengora?

Han agian fisikoki gogorragoa da jendea, dena ematen dugu, baina hemen teknika hobeto menderatzen dute. Zelaia ere oso ona da.

Zumaiakok eutsiko al dio mailari?

Nik ezin dut gauza handirik esan, bi partidua bakarrik jokatu eta baititut beste taldeak ezagutzen. Egia da zaila daukagula, gelditzen diren hiru partiduetatik pare bat irabazi beharko baititugu... baina ez da ezinezkoa eta saiatuko gara.

Atzerritarrek Zumaiakon

Yuji Horimizo Terada japoniarra 85/86 denboraldian aritu zen Zumaiakon, gaztelania kurtso bat ikastera etorria eta Gonzalo Esnal entrenatzaileak auskalo nondik deskubritua. “Aurrelari bizi-bizia

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 943 862373

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

Bigarren ekitaldi arrakastatsua

Maiatzaren 1ean jokatu zen Surf eta Paipoen Bigarren Txapelketa. Hasiera batean apirilaren 21ean izan behar zuen, baina, atzeratu egin behar izan zen, Santelmoen lehen asteburuan ez baitzegoen olaturik Itzurunen. Langile Eguna aukeratu zuten antolatzaileek ordezko egun bezala. Olatuak bazeuden, sekulakoak gainera, nahiz eta eguna aurrera joan ahala pixka bat baretu. Barealdiak ez zuen asko iraun, eguerdian ipar haizea nagusitu eta itsasoaren egoera guztiz nahastu baitzen. Aipa daiteke, olatuak aurreko ekitaldiarekin konparatuz okerragoak izan zirela, eta horrek sorpresa batzuk erakarri zituela sailkapenean.

Ekitaldi arrakastatsua izan da aurtengoa. 55 kirolarik hartu dute parte txapelketan, aurrekoan baino 10 gutxiagok. Giroari dagokionez, sekulako martxa egon zen Itzurunen. Bai goialdean eta bai hondartzan jende ugari izan zen txapelketa ikusten egun osoan zehar. Hondartzako kantina ere irekita egon zen, eta horrek asko lagundu zuen.

Lehiaketari dagokionez, paipoa eta surfa txandakatu egin ziren uretan.



Olatuen eraginpean, sorpresa bat baino gehiago izan zen Txapelketan. Paipoen arloan, irabazlea Manu Uranga izan zen. Bigarrena Jon Lopez izan zen eta jarraian Jose Luis Suarez eta Alex Uranga. Surfean, berriz, irabazlea Eneko Ibar izan zen. Bigarren Isaac, hirugarren Unax eta laugarren paipoetan irabazle izan zen Manu Uranga.

Txapelketaren ondoren, sari banaketa izan zen. Irabazleek taula bana eraman zuten. Gero parte hartzaile denen artean surfeko materiala zozketatu zen. Egun arrakastatsu honen albiste txar bakarra gauean eman zen, norbaitek Gurutze Gorriko lokalaren leihoa apurtu baitzuen, bertan, agian, zerbait lapurtuko zuen itxaropenarekin.



Trapaiakoek zarauztarrei irabazi

Ez dira makalak Trapaiakoak. Zumaiako plaieroetan irabazle izan eta astebete geroago, Zarauzko txapelketan garaile izan ziren Erantz-Ebaxte taldea menpean hartu zuten. Eskualdeko txapelduna zein zen erabakitzeke zen partidua eta bazirudien zarauztarrek garaipena erraz eramango zutela, baina hara non zumaiarrek bi gol sartu eta zarauztarren gol bakarraren aurrean partidua irabazi. Ez gatzuk makalak zumayarrak!

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Guaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Irudika idurika

Bertsoak eta margoak jolasean



Azkenaldian makina bat toki eta proiektutan ikusi ahal izan dugu Jon Maia, eta oraingo honetan ere ipurdia beti aulki berean eduki ezin duen mutila dela erakutsi digu. Izan ere, lan ilustratibo baten aurkezpena egin berri du proiektukide duen Mikel Dalbret alboan duela: IRUDIKA IDURIKA izeneko liburua. Maiatzaren 10ean, Taosa liburu dendan egin zuten prentsaurrekoa iluntzeko zortziak aldean.

Lagunarteko giroa zen nagusi eta bertaraturiko 20-25 lagunek aurrez aurre izan zituzten bi artistak. Bien iritzi eta jarduna entzun, liburuaren azalpenak aditu, eta bi mundu nola uztartu diren ikusi ahal izan zuten. Pintura eta bertsolaritza sentimendu eta ideiak adierazteko bi bide ezberdin badira ere, liburu honetan bi bide horiek bat egin dute. Alde batetik Mikel Dalbret pintorearen irudiak daude; kolorez jantzitako ilustrazioak dira Saran bizi den gizonarenak; eta, bestalde, Jon Maiaren lana dago, irudiari dagokion bertsoa, margoaz eginiko ilustrazioaren hitzezko irudikapena.

“Margoz eta bertsoz beteriko paisaiak ikusiko dituzu.”

Mikel Dalbret-ek esan zuenez, “honelako egitasmoetan egiten den bidean lehenik hitzak egiten dira, eta behin letrak daudela haren arabera egiten marrazkiak edo pintura ilustrazioak. Hemen, berriz, alderantzizko bidea egin dugu, pinturatik hasi eta hitzetan amaitu”. Maia-k lan prozesuaz honela jarraitu zuen: “Mikelek irudiak aurrez eginak zituen, eta nire eskutan utzi zituen. Nik haietatik aukeraketa egin nuen, eta gero aukeraturiko haiek ikusiz neure interpretazioa egin nuen eta bertsoak jarri nizkien”.

“Iraganetik etorkizunera igaroko zara, bere harri borobilezko zola gainean ibiliz.”

Liburuaren argitalpenean bi argitaletzek hartu dute parte: iparraldeko Gatuzaín-ek eta Arabera-k. Hau dela eta hura dela, ia urtebeteko lana izan dela esan zuen Maiak. Liburuak duen kalitatea ere azpimarratu zuen, orriak liburu normaletakoak baino hobeak direla zioen, marrazkientzat euskarri sendoa behar delako; eta koloreek berezko espresioa izan dezaten ere lan ugari egin dutela gaineratu zuen, “kontu handiz ibili behar baita, tonuak eta margoak alda ez daitezen”.

Arteaz gozatzeko parada paregabea honakoa. Dagoeneko liburu dendetan salgai.

“Muga oro gaindituz, hegoa iparrarekin, iparra hegoarekin, bertsoa margolaritzarekin eta margolaritzak guztia munduarekin lotzen duen zubia da gurea.”



Tel. 943 143379



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

Artista Berrien lehen saria Jon Ander eta Itziar Gartziak

Jon Ander eta Itziarrek iaz
bukatu zituzten Arte
Ederretako ikasketak Leioako
fakultatean, eta Bartzelonan
ari dira orain doktoretza
ikasketak egiten. Bata
zumaiarra eta bestea donos-
tiarra, bikotekideak dira
bizitza errealean eta artis-
tikoan.

Ez da elkarrekin irabazi duten lehen saria, baina bai garrantzitsuena. Izan ere, Artista Berrien lehiaketa honek, sari ekonomiko mardulak banatzeaz gain (lehenengoa miloi eta erdi pezeta, bigarrena miloi bat eta hirugarrena miloi erdia) artista errebelazioak (30 urtez beherakoen lanak bakarrik

onartzen dira) seinalatzea baita sariketa honen funtsa.

Bi lan aurkeztu dituzte sariketara, 'Des-ira' izenekoa bata eta 'in.com' izenekoa bestea. Biak ere ekainaren 16a arte Koldo Mitxelena egingo den erakusketarako aukeratu dituzte eta 'in.com'-ekin irabazi dute lehen saria. Sari hori instalazio bat da, aurrez aurre egon beharrean elkarren ondoan dauden bi ziberkaferen bitartez sortzen diren harremanetan inpiratua, eta interneten aurpegi absurdua

agerian utziz inkomunikazioaren gaia jorratzen duena. Bi proiektore dira instalazioaren ardatz, eta bikotearen irudiak ageri dira horma zurietan proiektaturik.

Bigarren saria Ana Lezeta oñatiarrak eskuratu du 'Reservado' eskultura-ekin eta Nerea Zapirain urnietarrak hirugarrena 'soportador de arte' lanarekin. Epaimahaikoak, berriz, Fernando Golmaio, Javier San Martin, Rikardo Ugarte, Piedad Solans eta Ismael Manterola izan dira.





AUTO-ESKOLA



ZUMAI A



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018



Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

KUKUTZ

serigrafia

- *kamisetak
- *txiskeroak
- *paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoaderazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 943 143422



maiatza agenda

"LOTSAGABE" ZUMAIAN

Antzerki saio berri bat ikusteko aukera izango dute zumaiarrek datorren ekainaren 1ean. Vaiven teatroaren eskutik "Lotsagabe" antzezlanak aurkeztuko da Zumaiian. Ana Pimentaren ideia batean oinarrituta, Felipe Loza eta Garbi Losadak gaztedia, gurasoak eta sexuari buruzko obra bat idatzi zuten. Taula gainean neska eta mutil talde batek sexua izango du mintzagai bakarra. Beraien beldurak, pozak, frustrazioak, emozioak aitortuko dizkigute, eta noski, mila eta bat galdera egingo dizkigute, beti ere secua ardatz nagusitzat hartuta. Gaztediarentzat aproposa den obra hau gaueko 10etan eskainiko da Aita Mari zinean



XIII. ARGAZKI LEHIAKETA

Aurtengoan ere Zumaiako Argazki Lehiaketaren beste ekitaldi bat antolatu da. Aurtengoan ez da zumaiarrentzat espreski antolatuko lehiaketarik izango. Lehiaketa honetan Euskal Herriko edozein zaletuk har dezake parte. Argazkiak paperean, txuri-beltzean aurkeztu beharko dira. Laborategiko edozein teknika erabil daiteke. Gaia librea izango da eta ezingo da aurkeztu beste inongo lehiaketan saritutako lanik. Irabazleak aukeratzeko epaimahaia argazki munduko pertsona adituez osatuko da, eta bere erabakia aldaezina izango da. Erabakia uztailaren 5ean emango da ezagutzera. Aurkeztu diren argazki onenekin erakusketa bat egingo da Forondan uztailaren 5etik 20ra bitartean. Lehiaketara aurkeztu diren lanak honako helbidera bidali beharko dira: Foronda Kultur Etxea. 20750 Zumaiak. Argazki bakoitzaren atzean lanaren izena, egilearena eta NAN zenbakia, helbidea eta telefonoa jarri beharko dira. Hiru sari banatuko dira: lehenarentzat 50.000 pezeta eta garaikurra, bigarrenarentzat 40.000 pezeta eta hirugarrenarentzat 30.000 pezeta.

26

larunbata

BILBORA IRTEERA

Maiatzaren 26an Bilbora irteera egingo da Zumaiateik. Goizeko 10etan izango da irteera. Lehen bisitaldia Guggenheim museora egingo da. Han, ibilaldi gidatu baten bidez Giorgio

Armaniren erakusketa ikusiko da. Arratsaldean, berri, BBK bankuak Gran Vian duen aretoan, Cesar eskulturgilearen lanak ikusiko dira. Izenematea Foronda Kultur Etxean maiatzaren 22a bitartean. Ordaindu beharrekoa: 1.500 pezeta.



LANDAREZAINZA IKASTAROA

Balkoi eta leihotako landareak zaintzeko ikastaroa antolatu da Foronda Kultur Etxean. Maiatzaren 29 eta 31an, arratsaldeko 3etatik 5etara eskainiko da ikastaroa. Izenemate epea maiatzaren 21etik 25eta egongo da zabalik. Matrikula 1.000 pezetakoa izango da.

31

osteguna

MUSIKA
Musika Eskolako
kurtso
amaierako
kontzertuak
19:00etan
Maria eta josen

1

ostirala

MUSIKA
Musika Eskolako
kurtso
amaierako
kontzertuak
19:00etan
Maria eta josen

31

osteguna

ZINE FORUM
SAIOA
"Nacional 7"
22:15etan
Aita Marin



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Rakel
estetika

kiromasajea
tatuajeak

Aita Mari 42, behea TEL: 943 862093

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Europa garbiketara eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

LEHIAKETA

• Galdera: **Zein bertsolari zumaierrek argitaratu berri du liburu bat?**

Erantzunak Baleikeko buzoian utzi.



Izenburua: Korapiloak

Egilea: Jasone Osoro

Argitaletxea: Elkarlanean

Urtea: 2001



Tentazioak ipuin-bildumaz lortu zuen arrakasta finkatza eta gairak dator Jasone Osoro, Igartzak bekaren laguntzaz idatzitako liburu honekin.

Hamazazpi ipuin eta beste horrenbeste poemaz osatutako liburua da Korapiloak; bertako pertsonaiak ere istorio batetik bestera igarotzen dira, haien arteko korapiloak sortuz eta kontakizuna aberastuz, eta irakurlearen esku geratuko da, azkenik, protagonisten arteko loturak argitzea eta maitasunaren puzzlea piezaz pieza osatzea.

Egunerokotasun eta absurduaren artean mugitzen da Jasone Osoro liburu berri honetan, izenik ez duen hiri bateko jende anonimoaren geletan sartuz eta haien sekretuak argituz, irakurlearen begi harrituen aurrean. Ispiluaren bestaldean gu geu gaude ordea, norberaren bizitza ere korapiloz betetako soka luzea baita: askatzen den korapilo bakoitzeko biluziagoratzatzen gara, baina hurbilago dugu, era berean, desira ezkutuen ametsa.

Jasone Osoro Igartzua Elgoibarren jaio zen 1971ko abuztuaren 12an. Kazetari eta gidoigilea da, hainbat komunikabidetan aritua. Literaturaren alorrean Tentazioak izan zen bere lehenengo liburua, 1998an, egundoko arrakasta lortu zuena. Urte berean kaleratu zuen Isadora, Isadora Duncan dantzari ahaztezinaren biografia.

Apirileko lehiaketako irabazleak: J.M. Eizmendi eta Kistiñe Astigarraga izan ziren.



Maiatzak 31, osteguna
Nacional 7

Zuz: Jean-Pierre Sinapi
Akt: Nadia Kaci, Olivier Gourmet

Jada ez dago dudak jartzerik zer nolako iraultza ekarri duen bideo digitalak zinema mundura. Teknologia honekin ia edozein izan daiteke gai pelikula bat egiteko. Nahikoa izan liteke kamara hauetako bat lortu, lagun multzo bat inguratu era ideia on bat edukitzea. Bideo digitalarekin pelikula ugari egin dira azken urteotan. Hor daude, adibide bezala, Dogma mugimenduaren barnean egindako filmak, edo Zumaian ikusi ahal izan diren *Bailar en la oscuridad* eta *La vigen de los sicarios* ikaragarriak.

Jean-Pierre Sinapi gidoilari frantsesak teknika hau erabili du bere bigarren lan honetan. Berlin zein Donostiako zinemaldietan ikusleen sariak jaso dituen pelikula honek Toulon hiriko ospitale batean bizi diren elbarri batzuen bizitza kontatzen digu, eta bereziki sexuarekiko duten harremana eta beharra. Pelikulako pertsonaia nagusia René da. Emagaldutako batekin sexu harremanak eduki arte, pertsona jasangaitza da René. Harreman horren ondoren, gizaki maitagarria bihurtuko da.

Nahiko zaila da elbarrien mundura hurbiltzea eta sentiblerian ez erortzea. Hala ere, Sinapik lortu du bere helburua, eta komedia eder honekin elbarrien behar eta errealitatearen berri ematen du. Zinema frantziarra Europar oraindik nagusi den seinale.



Basadi 5C
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak





Baleike Zumaiaiko herri aldizkariak **VII. Komiki Lehiaketa** antolatuta du. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiaarrak tentatu nahi ditugu lan pixkat egitera.

1. Lehiaketan **14 urtetik gorakoek** har dezakete parte.
2. Komikiak **jatorrizkoak eta argitaratu gabeak** izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde, edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.
3. Marrazkiak **zuri-beltzean** eginak izango dira, eta edozein teknika erabili ahal izango da.
4. Lanak bakarka edota talde lanean aurkeztu ahal dira. Hori bai, **euskarazko** lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa da gurea.
5. Lanak 2001eko **uztailaren 27a baino lehen** aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:

BALEIKE. Juan Belmonte 29 behea. 20750 ZUMAIA

Lanak bi gutunazaletan aurkeztuko dira. Handian lana sartuko da, azalean "Zumaiaiko VII. Baleike Komiki Lehiaketa" eta lanaren izenburua jarriko dira. Gutunazal txikiaren kanpoaldean lanaren izenburua jarriko da eta barruan datu pertsonalak sartuko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez gutunazaletan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

6. Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuaren amaierarako emango dute aditzera beren erabakia.
7. Epaimahaikideen iritziz lanek gutxienezko kalitatearik ez balute, sariak eman gabe gera litezke. Bestalde, originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzen.
8. Honako sari hauek ezarri dira:
 1. **saria 50.000 pta.**
 2. **saria 30.000 pta.**

Zumaiairrik onenarentzat 20.000 pta.
9. Saritutako lanen jabe Baleike egingo da, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.
10. Saritu gabeko lanak Baleikeraren lokalean egongo dira lehiakideen esku, epaia eman eta hilabeteko epean. Jasotzen ez diren lanak Baleikeraren jabegopean geratuko dira.
11. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantzarik izanez gero antolatzaileek argituko dituzte.

TXALAPARTA
OPARIK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089



TXINGURRI
Koof. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 0778 - (943) 14 0940

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak

AIZMAN-KOS S.L.

**SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALAK**

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 943148124
20740 IRAETA- ZESTOA

Forondako oharrak

San Pedroak badatozela!!!

Antolaketa bilerara gonbidatuak zaudebe:
maiatzak 24, osteguna, 6,30etan Udalekuean

Zumaiako XIII Argazki Lehiaketa. Eskatu oinarriak

Guggenheimera goaz.

Maiatzak 26, larunbata, 10etan irtenda.
Izen ematea: maiatzak 22a arte. 1.500 pezeta.

Vaiven Teatroaren "Lotsa gabe" antzezlan.

Ekainak 1, 22:00etan Aita Marín.
Herriko gazte-gaztetxo, guraso-hezitzaile, eta baita zuretzat ere.



ERROTA



OPIL OKINDEGIAT

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60